

GURE IOTERIETAN BARRENA

Ioterik, eguberrietako solstizio-festa ospatu berritan, gainera etortzen zaizkigun negu beteko egun bereziak. Antzinatek, Erromatarren garaitik, ospatu izandu dira ioterien antzeko festak, negua aurreratzearen antolatua, udaberriari hots eginez. Era batera edo bestera, indar handiagoz edo gutxiagoz, ospatu betiere ioteriak.

Historia pixka bat

Gurean ere, Leitzan, ioteriak oso gogoan hartu izandu diren festak dira, inondik ere. Gainera, festa horiek bereziak eta bitxiak dira oso. Ospatzeko tenorea ere berezia dugu, ibeltzen azken astean egiten baitira gaur egun. Baina horrek ere badu bere arrazoia: hain zuzen ere, 1936tik aurrera pairatu zen erregimenaren ondorioa baita. Orduan, aurpegia estalita ibiltzeko ohitura eta ospakizunak galarazi egin baitzituzten. Hala ere, gerra amaitu ondoren ere, herrian berehala hasi ziren festa izugarria berriz ere indartzen: atsaureak, antzezpenak, zirika-mirika ibiltzea... Hala, 1940tik 1955. urtera arte ioterik ospatu ziren berez dagozkien datetan, eta ongi ospatu ere. Baina indar handia hartu zuten eta orduan hasi ziren elizaren eta zibilen erasoak, erregimenaren errepresioa.

Arriskuan ibili behar

Eta urte frankotan galarazita egon arren, herritarrek lehengoari eutsi, eta atera egiten ziren aurpegia estalita, zintzarri-kulunak zintzilik, txanoa buruan, aurpegian kareta edo trapua, eta arropa zarpazu batzuk soinean. Dena dela, atxiloketak, jendearen atzetik ibiltzeak, istiluak gertatzeko beldurrak eta mehatxuak zirela medio, herriko agintariak egutegian dagokien tokitik erabaki zuten, eta, ordainetan edo, dataz aldatu. Urte batzuetan, jendearengan horrek ezinegona eta haserrea sorrarazi zuen, eta ahaleginak egin zituzten plazan beharrean beste auzoren batean zein herriko estazioan festari bizirik eusteko. Azkenean, 50eko hamarkadan, dataz aldatu eta izena ere aldatu zitzaizen: *pesta txikiak*.

Aurpegia estalita, desobedientzia

Gauzak horrela, data desberdinetan izan arren, ioterik aurrera egin zuten eta bertako usadio batzuk berreskuratu. Leitzan gainera, Tolosan edota Zubietan ez bezala, aurpegia estalita atera izan da jendea beti, oztopoak oztopo, desobedientziaren bidetik. Eta, xaharrenen esanetan, leitzarrak Tolosara joanda, harriturik gelditzen ziren hango festa-mota ikusita, hau da, jendea aurpegia agerian zebilela ikusita. Batere esparik ez jendeak Tolosarako. Hemengo festa handiagoa eta polittagoa iruditzen bertakoei.

Atzera begira jarrita

Oroimen kultural hori ongi gordea gelditzen zen adineko batzuen buruan, eta ederki gogoratzen ziren “atsauretuen” ibilieraz. Haiengana jo eta gauza asko ikasi ditugu. Erreka eta Sakulu auzoetakoak ziren famatuenak herritarren artean gerra aurreko urte haietan: haien soineko eder, ttuttur haundi eta koloretsuak... Arkixkilgo atsoak zein gurdiak ere oso sonatuak ziren eta Gorritzaran zein Erasoteko zakuak eta azienda-jantziak ere nabarmentzen ziren.

Jende ugari ateratzen

Orduan, ospatzeko era oso parte-hartzailea zen: “jende asko” zomorrotzen zen, eta gainera modu askotara, berdin herritarrek zein bordari-baserritarrek. Jaso dugunez, Euskal Herriko beste herrietako pertsonaien oso antzekoak ziren hemengoak ere. Eta ez

zen pertsonai nagusi bat, baizik eta pertsonai berezi ugari, eta guziek beren rola betetzen zuten pesta ospatzerakoan: taldetxoak elkartu eta joare zein kulunke soinua zabaldu izpiritu gaiztoak eta uxatzeko; jendea izutu, lokatzez edo bestela zikindu, jendeari barrea eragin; umeei segitu eta maskuriz jo edota luma-isatsez eta abarrez zirikatatu; neskei kilimak egin, astinaldiak eman, besarkatu edota dantzan ibili...

Ibilbide desberdinak, herrietako mugak gaindituz

Erreka eta Sakulu auzoetako baserritarren atsaureez oroitzen ziren zaharrenek gehien bat, gerra aurrean eta ondoren ere oso nabarmendu baitziren. Han Plazaola inguruan, Nafarroa eta Gipuzkoako mugaz bi aldetako gazteek, urtean zehar, ttuturru haundi batzuk osatzen zituzten txano xume bat oinarri hartuta, alanbre batzuekin estruktura handiagoa osatuz, eta ondoren kolore ezberdinetako parerekin estaliz; amaitzeko, putre edo zapelatz lumekin osatu eta dotoretu. Oso ikusgarriak izaten ziren tuturru horiek buru gainean jarrita: altu izugarriak eta eder ederrak. Atsaurea osatzeko, dena goitik behera izugarria: soineko luze koloretsuak, eskuan eskularruak jarri eta txerri maskuria edo lumekin egindako isatsa hartu; gerrialdean txintzarri eta joareak paratu, aurpegia eta lepoa den-dena ongi estalita. Laguntzaitako, ba, akordiolari bat soinua ateratzeko haien ibilbide berezietan. Ibilbideak berriz urtero desberdin: Plazaolatik abiatu eta Berastegiko bentetara gosaltzera joan, eta gero herrira, Leitzako plazara; edo Errekatik Aresora lehendabizi eta gero herrira. Bidean zihoazela, saltoka, konpasean ibiltzen ziren kulunka-txintzarri edo joarez soinu polita egiteko.

Kulun-kulun, saltoka eta konpasean

Zaharrenen esanetan, Iturengo joaldunen modutsuan ibiltzen ziren. Gainera, bidean herrirantz zetozela, inguruko beste baserri batzuetako atsaure gehiago ere elkartzen zitzaizkien. Hala, ikusmin handia bizten zuten herrian eta haien etorreraren zain herritar asko egoten zen, halako jantzi dotorekin, tuturru haiekin, herria gora eta herria behera. Jendea ez omen zen aspertzen haiei begira.

Atsoa eta agurea, agurea eta atsoa

Dena dela, atsauretzeko era anitza zen, zabala oso: herri guzia atsauretzen omen zen, mutilak ia denak eta neskak ere ateratzen ziren. Izan ere, zer da atsauretzea, atso edo agurez janztea besterik? Eta horrek zer esan nahi du? Atsoz edo agurez janzten zela jendea, eta normalean mutilak neskez eta neskak mutilez. Eta, den-denak aurpegia estalita, eta zerbait berezia eskutan (maskuria, luma-isatsa, makila...) eta buruan (txanoren bat beti). Orduan, garai hartan, gaztea estali gabe etxetik ateratzea lotsa emangarria omen zen.

Neskak partaide

Neska dezenteren berri ere izan dugu, alegia, nola ateratzen ziren inork ezagutu gabe, batetik tabernetan sartzeko, eta bestetik bihurrikeriak egiteko... Esaterako, ijito eran jantzi eta senarrari berari musuak eman zizkion haren testigantza xelebrea! Senarrak berak ez ezagutu eta ondoren harro demonio gizaki hura, musukatu zutela esanez, eta zer da eta, haren andrea izakio muxua eman ziona!

Zarpak hartu eta atera, inork ez ezagutzeko moduan

Atso asko izaten zen soineko luze samarrakin, ahal bazen koloretsuak, tuturru liso batekin, apaingarri batzuk erantsita... Besterik ez zuenak ba, etxeko zarpa batzuk jantzi eta atso-jantzia egina. Esaterako, mutilen artean arrakastatsuenak emakumeen jantziak; soineko zahar bat, gona, sobrekama luze bat edo manddarea, sostenen bat agerian

igual... Ez ezagutzez gero, aurpegia estalita eramaki, eta trastakeria egiteko modua izanez gero, aurrera, dena prest! Eta ez ezagutze horretan, ba, auzo batekoa zena, beste auzo batetik ateratzen zen, eta hala nor nondik zebilen edo heldu zen berdin zitzaioan, dena alderantziz egiten baitzuten. Hala, norberak ibilera ere aldatzen zuen: zalkorra erantsita, tripa jarrita, urgun edo maingu ibilera eginez... Eta bakarren batek ezagutuz gero, segidan etxera joan, eta arropa aldatu. Edo lagunarekin joan eta harena jantzi, trukatu...

Aziendaz atsauretuak, era askotakoak: otsoa, hartza, aharia...

Batez ere, baserri inguruko jendea askotan azienda-jantzian ateratzen zen. Inon larruren bat edo baldin bazen, ba, han izanen zuen soineko gisa edo. Beste Euskal Herriko herri askotan gorde den moduan, Leitzan ere bi animalia esanguratsuenak azaltzen omen ziren negua atzean uztearen ondorioz edo: hartza eta otsoa. Gorputza osorik asto baten larruarekin edota ardi-larruarekin estalita, haien ibilerak eta erasoaldiak imitatuz, jendea izutuz eta lizunkeriak eta eginez... Otso jantzian zebilena lau hanketan ibiliz herrian barrena...erasokor!

Azienda-jantzian era gehiagotan ere ateratzen ziren eta guziak oso ikusgarriak eta beldurgarriak izaten ziren. Larrua gorputzean jantzi, buruan erantsi kaska-hezurra eta adarrak, eta kanpora zomorroturik! Behia, zezena edo akerra ikustea ohikoa, jendeari ekinez adarkazoa jotzeko asmotan; ahari-jantzian ardi larruz estalita eta jendeari erasoka kopetakoa emateko...Asto edo behor jantzian ere ibiltzen zenik ere bazen. Baita behi-parea bailitzan, uztarrin loturiko bikotea, kopetakoak eta denak ederki paratuak eta gurditik tiraka, herri erditik barrena plazaraino, gurdian erantsita zerbait eramanez....

Zakuzaharrak

Horiez gain, oso oso zabaldua baserritarrengan eta herritarrengan zakuz janzteak; belarrarekin edo arto-txurikinarekin behetik eta goraino potzolo-potzolo jarrita, ongi betez soin guzia...Edota zakua burutik behera jarrita... Horrelakoak izaten ziren urtero batzuk, eta jendeak barre egiten zuen, erruz. Dena dela, bultza eginez gero, lurrera erori eta ezin goratuz gelditzen baitziren zaku-potzolo horiek, eta traketsa omen zen atsaure hori. Konpazio batera, aipatu digute behin Zapatanetik 7 bat zaku-potzolo batera nola atera ziren, erasotearrak akaso, han jantziak, eta herria behera joan, zein ikusgarria! Inguruan beste lagun saila zutela erortzen zirenean goratzen laguntzeko...

Sorginak, inudeak, apaizak...

Bestelakoak ere aipatuak dira ohiko moduan: mamuak edo sorginak bezala maindire zuriz eta abar jantzita; inudeak haurra beren aulkitxoan zeramatela; apaiz jantzian ibiltzen zirenak; argazkilari gisan ateratzen zirenak argazkia beharrean ura eta lokatza botaz garai bateko makina estalia agertzerakoan tutu batetik zirria botata; herriko agintarien gisan jantzi dotore-dotoreekin ibiltzen ziren pertsonai bereziak...

Animaliak zomorrotzea eta gurdiak ateratzea

Beste ohitura berezi bat zen animaliak zomorrotzekoa: txakurtxoak ume moduan sehaskan sartuta, haurren soinekoa jantzita; astoa arroparekin eta txanoa eta abarrak jantzita; azeria bizirik ekartzea, edota bestelako aziendaren bat ere oso ohikoa izaten zen, modu barregarrian jantzita betiere. Esaterako, azeria loturik eramandako pasadizo xelebrea; hantxe gizakia atsauretua, eta ondoan azeria loturik, denak zirikatzen eta amorrarazten. Orduan, zer da eta pixagaletu biak ere. Egin dute beren pixerreka eta albientek harrapatu. Multa ordainarazi omen zitzaioan atsaure hari.

Aldika, gurdiak ere azaltzen ziren: baten, gurdi zaharraren gainean putrea gainean, loturik ekarri; hurrengo aldian berriz, gizakia astoaz atsauretu, isatsa eta guzi eta gurdia arrastatuz; beste batean, gizaki pare, uztarran gurdia arrastatuz, pertika eta guzi.

Antzezenak

Eta antzerki edota bestelako ikuskizunak ere oso estimatuak ziren. Jendea plazan zelarik, bat-batean, hantxe agertuko zen taldetxoren bat bere ikuskizuna eskaintzera: koadrila oso bat garai bateko ezkontza antzeztuz; gurdia idi-pareak eramanik, kaskabiloen soinua, han barnean arrea; ezkontzan parte hartu behar zuten guziak jantzirik dagokion eran baina jakina aurpegia estalita... Geroxeago, han azalduko zen beste taldetxo bat: apaiza, laguntzaileak, ama eta haurra bataiatzeko, bataioa ospatzen hasi eta haurra beharren txakurtxo soineko zuri luzearekin, hura bataiatuko zuen apaiz estaliak! Beste batean berriz, iruleak gurdi gainean antzina egin ohi zuten gisan beren tresna guziak erabiliz....

Dantzariak

Nabarmena zen dantzarako grina plazan eta baita dantzariz jantzea, aurpegia estalita, hori jakina. Behin, bi bikote ingurutxorako prest goitik behera jantziak, aurpegian trapu zuria paratuta, plaza inguruan dantzan...Nor ote? Neskak edo mutilak? Inork ez ezagutzen! Eta haiek bueltaka dantzan, Aieneko hortatik Torrera jeitsi...ingurutxo dantzatuz.... Eta ez ezagutzen....

Zenbaitetan, azken egunean, astearte-ioten, gerra aurrean, ingurutxoko sokadantza eta beste zatiren bat ere egiten omen zituzten plazan ziren atsauretu batzuek, dezentek...Bakoitza bere jantzian eta ahal zuen bikoterik egokiena aukeratuta...

Tarteka, gainera, aurpegia estalita zeramatera, gustatuta zeudenak elkarrekin, ados jarri eta atsauretzea aprobetxatzen zuten dantzan ibiltzeko, baltsean edo elkarrekin, inork jakin gabe...Zirriren batzuk elkarri egiteko. Libertsioa, gozo-gozoa, orduakoa!

Zankodunak

Zankoeekin ere ibiltzen ziren aldizka Gorritzaran auzoko baserritar batzuk, eta horrek ere jendearen gogo asebetezen zuen: han baserri-auzoan jantzi, beste auzo bateraino joan, kasu honetan Erasotera tuneletatik ezkutuka, eta handik, Uitzia aldetik bezala, herrira zankoen gainean, jendeak urrutitik ikusten zituela: lehena, ardi-larrue bizkarren zuela; hurrena, tuturu batekin; hirugarren bat, zakua burutik zeramakila. Jakina, denak aurpegia estalita. Nongoak ote ziren erraldoi haiek? Uitziarak? Lekunberriarrak?

Ioteri egunak eta hango festa bizia

Igandea, astelehena eta astearte, hiru egun. Leitzarren hizkeran: **zaldun-iote, astelehen-iote eta astearte-iote**. Hiruetan atsauretu behar, eta inork ezagutu gabe. Lagunekin eta abar aldatu egin behar, beraz, arropak. Eta iluntzean, apaizak amezkila jotzen zuenean, trapua kendu behar edo alde egin behar... Biharamunean berriz, bazkalondoan, herrira atsauretuta. Ahal zuenak dantzaldiren bat egin, edo neskatxen batengana edo arrimatu eta besarkatu...edo luma-isatsarekin kilimak egin....Oihua egiten zion hurrari eraso. Haurrek eta gazteek oihu egiten baitzieten: "Atsoa atsoa zerrie beño faltsogoa". Eta hori adituz gero, zalaparta eta saltsa hortxe hasiko zen, ume eta larri askoren gozagarri...

Hori guzia esan bezala gerra aurrean eta gerra ondoren ere bai urte mordoan. Egun horietan eta gaueko amezkila jo bitartean dena libre eta dena libertade! Ihauterietan naturari goratzarre, eta zintzarri soinua lagun izpiritu garbitze bikaina!

